

## FUNTSEZKO SOZIETATEAK

Gure proiektua aurrera eramateko eta produktua produzitu ahal izateko hainbat hornitzaileen laguntzaz baliatzen gara. Hasiera batean gure hornitzaile nagusia 3D makina zen, eskaera pertsonalizatuak soilik jasotzen genituelako eta eskolak bat zuenez honetaz baliatu ginen. Baina hau aldatzen joan den heinean, beste enpresa batzuk bihurtu dira gure hornitzaile nagusi. Alde batetik, gure karkasen forma duten moldeak sortzen dituen enpresa eta bestetik, lehengai bezala erabiliko dugun plastiko birziklatua sortzen duen enpresa dira hornitzaile nagusiak. Nahiz eta bezero gehienek kantitate handiko eskaerak egin, karkasa pertsonalizatuaren zerbitzua hala ere eskaintzen dugunez, eskolako 3D makina ez dugu baztertu.



Bestalde, gure enpresaren bazkideak, hiru pertsona gara. Elene-k komertzial lanak egiten ditu, hau da azoketara produktua aurkeztera joan eta eskola eta enpresa desberdinetan proiektuaren berri eman. Javi-k ekoizpen enprekin du harremana, hau da, produkzioaren gorabeherak eta hauen kontrol minimoaz arduratzen da. Azkenik, Nagore, karkasen diseinuaz arduratzen da, hau da, eskari pertsonalizatu bat jasotzean, zehaztasun guztiak gehitzen eta kantitate handiko eskariak jasotzean molde berrien diseinuak sortzen.